

ELKARGIk eta ASLEk bat egin dute haien enpresa elkartuei ekonomiaren eta finantzen arloko soluzio gehiago eskaintzeko.

➤ Batez ere sustatuko dira ondorengotza-proiektuak, belaunaldi-ordezkapeneko proiektuak eta enpresetan lan egiten duten pertsonen partaidetza har dezaketen proiektuak.

ELKARGIk eta ASLEk, Euskal Autonomia Erkidegoko Lan Sozietateak eta Partaidetzako Enpresak biltzen dituen enpresa elkarteak, lankidetzaren hitzarmena sinatu dute haien enpresa elkartuei ekonomiaren eta finantzen arloko soluzioak eskaintzeko. Batez ere sustatu nahi dira ondorengotza-proiektuak, belaunaldi-ordezkapeneko proiektuak eta enpresetan lan egiten duten pertsonen partaidetza har dezaketen proiektuak.

José Hernández Duñabeitia ASLEko zuzendari gerenteak eta **Pío Aguirre** ELKARGIko zuzendari nagusiak sinatu dute hitzarmena. Biak oso pozik agertu dira bat egite hori oso-oso onuragarria izango baita mota horretako proiektuetarako; bat egingo baitute, batetik, Estatuan gizarte-ekonomiako espezializazio eta norabide espezifikoaren duen elkarrekiko berme-sozietate bakarrak eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoko lan-sozietateen eta partaidetzako enpresen garapena sustatzea, babestea, finkatzea eta laguntzea sustatzen duen enpresa-elkarteak. Izatez, enpresa-segmentu horrek tradizio eta garrantzi handia du Euskal Autonomia Erkidegoan, sektore horrek enpleguan duen pisuagatik ez ezik, sortzen duen aberastasunagatik ere bai.

ASLE, ELKARGIren bazkide babeslea da eta ELKARGIren Administrazio Kontseiluko kide da Oinarrirekin bat egin ondoren. 20 urtetik gora daramatza ELKARGI modu aktiboan sustatzen eta ELKARGIrekin elkarlanean. Hitzarmen honen bidez, abalaren garrantzia hedatuko du enpresa elkartuen artean, enpresen finantzaketa errazten duen eta eskuragarritasuna hobetzen duen elementua den aldetik, eta haren bidez lor daitezkeen finantza-produktuak ere hedatuko ditu.

Jarduera nagusiaren barruan, ELKARGIk finantza-aholkularitza eskaintzen die, dohainik, ASLEko kide diren enpresa guztiei —hala eskatzen badute—, abala eman beharreko eragiketek amaiera ona izateko. Gaur egun, eta sortutako eragiketen ondorioz, 13 milioi euroko zor bizia du.

Pío Aguirrek nabarmendu duenez, “gure filosofia da ohiko abaletara ez mugatzea eta elkarrekiko berme-sozietatearen ahalmen osoa baliatzea —enpresen finantza-aliatu den aldetik eskaintza zabala baitu—.Askotan, finantzaketarik ez izateak zailago egiten du enpresek baliabideak eskuratzeko mekanismo horiek ezagutzea. Hori dela eta, garrantzi handikoa da lankidetzaz-ildoak sortzea Gizarte Ekonomiaren eta ELKARGI, SGR gisako finantza-eragileekin”.

Bestalde, José Hernándezek bat egiteak duen garrantzia nabarmendu zuen, bakarrik garapen-zailtasunak izango lituzketen enpresei estaldura emateko aukera ematen duen aldetik. ASLEk enpresa-proiektuen finantzaketa babestearekin duen konpromisoa argi eta garbi islatu zen ELKARGIren kapital sozialean egindako 581.298 €-ko ekarpenean, eta LANPAR Arrisku Kapitaleko Funtsean egindako 500.000€-ko ekarpenean.

Elkargiri buruz

Elkargi Estatuko lehen EGEa da, gizarte-ekonomian espezializatutako bakarra. Ia 40 urteko historia eta emandako 125.000 abal ditu, ia 15.300 enpresa bazkide du dauzka, ia 1.000 milioi euro indarreko abaletan eta 6.500 milioiko historikoa, ia 110 milioi baliabide propioetan eta % 15etik gorako kaudimen-ratioa. ETE-en, mikroenpresen, denden, ekintzaileen eta autonomoen enpresa-finantzaketa hobetzen laguntzeaz gainera, Elkargiren helburua da bere abal-jarduera finkatzea bolumen handi batekin, iraunkortasunaren aupadari aurre egiteko gai izateko. Horretarako, finantza-erakundeen eta beste erakunde batzuen aurrean edota espezializazio handia duten merkatu berriei negoziatioa errazten du. (www.elkargi.es)

ASLEri buruz

ASLE, irabazi asmorik gabeko enpresa-elkarte bat da, 1982 sortu zena. Bere historian 1.200 lan-sozietateri baino gehiagori eman die estaldura, eta, urriaren 14ko 44/2015 Legea argitaratu zenetik, enpresa partaidetuak ere hartzen ditu barnean. Lan-sozietatea merkataritza-enpresa bat da, eta enpresa horretan pertsonak dute kapital sozialaren gehiengoa. Enpresa partaidetuen kasuan, legeak halako enpresatzat jotzen ditu emaitzetan eta kapital sozialean partaidetza duten pertsonak dituztenak.

ASLE azken bost urteetan enpleguaren hazkunde jarraitua izaten ari da, eta, azken urtean, fakturazioa % 6 gehitu du, eta esportazioak % 11 gehitu ditu.